

Boterearen historikotasunaz

Keba, Jose Inazio, nik ez nizun kargu hartu nahi, eztabaidatu baino ez nuen egin nahi. Dena dela, hala-ko itxura eman banizun, barkatu, nire ofizio honen gabeziak izanen du errua. Zuk, aldiz, ekidistante deitzen didazu. Nik ere hiztegiara jo dut: zenbait punturen arteko distantzia berdintasuna. Beno, ez zait gaizki iruditzen, gustatzen zait izenondoa.



Zein lirateke bi puntuak?

Aurreko egunean aipatu genuen ETAk eragindako guardia zibilen hilketa, bat; Estatuak, denon ordezkartiaz beztiturik, eragindako 18/98 sumarioak jende errugabeari ekarri dizkion gartzela, isunak eta abar, eta hortik ondoriozta daitekeen Estatuaren nolabaiteko porrota, bi?

Beno, ba Jose Inazio, lazgarriagoa, lazgarriagoa diot (badakit politika sentimenduen eremura lerratu dudala izenondo horrekin), itzulerarik ez duen neurrian, lehendabizikoa iruditzen zait. Heriotza batek ez du bueltarik, nahiz eta uneoro hil jendea. Nietzschek zioen hura: “Biziak ez du ezer balio baina ezerk ez du bizia balio”. Eta kontuz, izugarria iruditzen zait sumario horrek akusatuegan eragindako kalteak.

Baina zuk geruzen zure azalpen horrekin argitzen didazunez, bat eta bestea fenomeno desberdinak dira; bata Estatuak eragin duelako, denok ordezkartzen gaituen zerbait, eta bestea, talde batek. Beno ba zure argudiatzearen arabera ezin naiz ekidistantea izan, izate desberdineko puntu biren artean ez dagoelako distantziarik. Hala ere, nik uste dut baietz, banaizela aipatu bi mutur horiek konpara daitezkeelako, neurri batean, eta urtean, ETAk (berriz ere neurri batean diot) euskaldun guztiok sinbolizatu izan gaituelakoz. Horregatik hartzen dugu aintzakotzat, bestela hiltzaile saldotzat joko genuke eta kito.

Eta, aurrekoan bezala –betikoan segitzen dugu–, hortik moralaren eremura ailegatu gara. Uste dut, Ur, gizakia on ala txarra den eztabaidatzea ez zaidala axola, une honetan. Konforme egon naiteke zure gure baitako *hitlerño*-aren teoriarekin (ala ez). Kontua litzateke morala eta etika *hitlerño* hori bezatzeko sortu zirela zehaztea. Eta sortu

ziren neurrian produktu kulturalak direla eta gizarte eta garai historiko bakoitzak izan duela bere morala, boterearen zegoen jende, talde, klase sozial eta abarren arabera, baina baita ere behean zeudenen laguntza, eraldatze eta abarrekin. Morala ez da beraz zerbait absolutua baizik eta historikoa, boterea ez den bezala.

Botereari dagokionez, barkatu, Foucault irakurri duen bat irakurtzen ari naiz, ez daude alde batetik banakoak eta bestetik boterea. Banakoak botere harremanen ondorio historikoa dira eta boterez eginak daude. Beraz norbanakoak ere erabiltzen du boterea. Horrek azal ditzake, Ur, “gure kontraesanak, guri egiten dizkigutenek sortzen diguten indignazioa eta guk egiten ditugunek sortzen ez digutena”.

Horregatik iruditzen zait, eta beharbada gaizki eta liseritu gabeko irakurketen ondorioa izan daiteke, laurogeiko marra ideologiko lodiak ez dutela balio eta are gutxiago praktika politikoak. Zein neurritaraino, demagun, indartzen du ETArekin jardunak Estatuaren botere harrotzea? Edo zein neu-

rritaraino hainbeste urtetako diskurtso politikoaren erabilerak ez ditu gure hitz guztiak erretorika –“erretolika merke” lokuzioa agertzen zen, Jose Inazio, ematen zenidan erantzunean– huts bihurtu?

Noraino dago egiten dugun/duten guztia esanahirik gabeko keinu izatera kondenturik? ■



Zein neurritaraino, demagun, indartzen du

ETAren jardunak Estatuaren botere harrotzea?

Edo zein neurritaraino hainbeste urtetako diskurtso

politikoaren erabilerak ez ditu gure hitz guztiak

erretorika huts bihurtu?

